

ELKAR 13. LEHIAKETA

Ipuinei irudia eta irudiari hitzak jarritz,
gaurko txikiak biharko sortzaile handiak

 **KULTURA** / Xabier izaga Gonzalez

Munduko
pastelik
handi
ena!
-esan
zion

Eñautek gozogileari-. Horixe nahi dut nire urtebetetzerako. Eskolara, bertan inoiz jan den pastelik handiena eraman nahi dut.

Emakume jakintsua zen gozogilea. Bidaia zalea oso, ha- maika herrialde ezagututakoa. Gau osoa eman zuen haur ha- ren pastela prestatzen. Mun- duko pastelik handiena esan zion Eñautek; baina, nola sar- tu mundua pastel batean? La- piko handi bat hartu eta jakiz betetzen hasi zen: gozoak, ga- ziak, gogorak, bigunak, han- goak eta hemengoak.

Gozogilea burruntzaliari bi- rak eta birak ematen aritu zen gau osoan, lapiko handi har- tan. Egindako bidaia guztiak gogoan, bertara jatekoak bota- tzen ibili zen: basamortuko da- tilak bota zituen, tropikoko hainbat fruitu, mendi altueta- ko behi-esnea. Munduko kakao eta azukre plantazio handie- netako landareak ere jaurti zi- tuen, baso berdeetako marru- bi, gerezi eta masustak eta zereal-zelai ederrenetako ga- riarekin egindako gailetak.

Gau osoa eman zuen bu- rrunztzaliari bueltaka, zazpi itsasoetatik nabigatzen zuen ontzia bailitzan. Eguzkia atera aurretik, labean sartu zuen na- hasketa ikaragarri hura.

Hurrengo egunean, Eñaut gozotegira sartu zen. Harritu- ta geratu zen gozogileak hain pastel txikia egin zuela ikus- tean.

-Baina nik pastel erraldoi bat eskatu nizun!

-Eraman ezazu eskolara eta proba ezazue bakoitzak puske- ta bat. Ikusiko duzue zein go- xoa dagoen!

Irudiek gauza asko esan dezakete, eta modu askotara adieraz daitezke. Era berean, kontaketa batek ezin konta ahala irudi iradoki ditzake. Irudiek eta ipuinek iradokitzen duten hori idatzi zein ilustratzeko aukera emango die Elkar Fundazioak antolatu duen Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketak haur eta gaztetxoei aurten ere, hamahirugarrenez, haien sormena sustatzeko asmoz.



-Nik ez nuen pastel goxo bat nahi! Nik munduko pastelik handiena nahi nuen!!!

Irakurlea mundu osoan ze- har eramango duen ipuin go- zo, oso gozo baten hasiera da. "Munduari bira pastel batean" du goiburu eta Lur Gallastegik idatzia da. Irakurtzen jarraitu nahi duenak [https://postda- ta.elkar.eus/ilustrazio_eta_ipu in_lehiaketa/sarrera](https://postdata.elkar.eus/ilustrazio_eta_ipuin_lehiaketa/sarrera) webgu- nera sartuta, klik batez osorik izango du irakurgai.

Irakurtzen duguna buruan irudikatzen dugu, eta irudika- tutako hori paperean marraz- tea trebetasuna lantzeko ari- keta entretenigarria da. Elkar Fundazioaren Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketak bakoitzaren trebetasun hori erakutsiz sari interesgarri bat irabazteko au- kera emango die aurten ere marraztea gustuko duten haur eta gaztetxoei.

Beste batzuek, berriz, ma- rraztea baino idaztea dute gustukoago, eta horiek ere izango dute beren dohaina erakusteko aukera lehiaketa horretan. Irudi batek gauza asko adieraz ditzake, eta askoz gehiago iradoki, askotariko is- torio eta egoerak. Esate bate- rako, Adur Larrearen ilustra- zioa ikusita, batek bere amonaren pasadizo bat gogo- ratuko du, edo kafeari anis tanta batzuk botatzen dizkion izebaren gaineko istorio harri- garri bat asmatu, edo...

Izan ere, Elkarrek antolatu- tako lehiaketak sormena eta irakurzaletasuna sustatzea du helburu. Sormena susta- tzeko modurik onena irakur- tzea da eta.

ILUSTRAZIOA, IPUINA EDO KOMIKIA

Lehiaketaren hamahirugarren edizioa da aurtengoa, eta au- rrekoek adinako arrakasta ba- du, milaka haur eta gaztek

Azkenik, hirugarren modalitateak komiki edo bineta bat egiteko aukera ematen du, gai hau oinarri hartuta: “Bizitza itsasontzian”. F sailean parte hartu ahal izango dute Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntza-

Beraz, modalitate guztietako parte hartzaile bakoitzak ezingo du lan bat baino gehiago aurkeztu.

Epaimahaia osatuko duten lagunak haur eta gazte literaturan adituak dira, eta lanen originaltasuna eta kalitatea

Maila bakoitzeko bi sari banatuko dira; adibidez, jolas hezitzaileak, Elkar dendetan erabiltzeko opari txartelak, Irrien Lagunen aldizkarirako harpidetzak eta, sari berezi modura, haien ikuskizuna ilustratzaile txikienen mailako irabazlearen ikastetxean. Ikasgela osoarentzako sariak ere izango dira.

Aurreko orrialdean, Adur Larreak aurtengo lehiaketarako egin duen ilustrazioa. Alboan, aurtengo edizioko kartela.